

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

#### Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren akats zuzenketa

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 33/2013 Foru Arauan, azaroaren 27koa, ALHAOren 140. zenbakian, 2013ko abenduaren 9an argitaratutakoa, euskarazko testuan, akats bat aurkitu da eta ondoren zuzenduko da.

82.2 artikuluan, honakoa dioen tokian:

2. Kopuru bereko kenkaria aplikatu ahal izango da zergadunak bere kargura daukan ondorengo edo aurreko bakoitzagatik, bai eta laugarren gradurainoko (berau barne) albo ahaide bakoitzagatik ere, zeinahi ere dela beraren adina, baldin eta desgaituta edo mendetasunean badago eta zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldata halako bitik gorako errentak lortu ez baditu, salbuetsitako errentak zenbatu gabe.

Ondokoa jarri behar da:

2. Kopuru bereko kenkaria aplikatu ahal izango da ondorengo edo aurreko bakoitzagatik, bai eta laugarren gradurainoko (berau barne) albo ahaide bakoitzagatik ere, zeinahi ere dela beraren adina, baldin eta pertsona hori zergadunarekin bizi izanik desgaituta edo mendetasun egoeran badago eta zergaldian lanbide arteko gutxieneko soldata halako bitik gorako errentak lortu ez baditu urtean, salbuetsitako errentak zenbatu gabe

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 20a

*Lehendakaria*

**JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA**